



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

“EUSKARA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK UZTARTZEN-I” EGITASMOA - 2009



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

1.- AURKEZPEN OROKORRA

XX. mendeak mundua eta gizateriaren jokabideak aldatu egin zituen goitik behera, komunikabideak, lan-mundua, aisi aldirako baliabideak eta abarrak teknologia berriez jantzi zituenetik.

2003an EBPNren itzalpean Gernika-Lumoko Plan Estrategikoa onartu zenean, zenbait ekintza hartu ziren lan gaitzat “Teknologia berrien” esparrurako. Orain, ordutik ona burututako egitasmoak eta abian ditugun beste asko, komunikaziorako teknologia berriak baliatuz gorpuztu nahi ditugu, bateratu, gune baten bildu, indartu azken batean.

Beraz, EBPN oinarri 2009-2012 eperako Gernika-Lumoko Udalbatzak 2008ko abenduaren 27an onartu zuen Plan Estrategikoari jarraiki, egitasmo zehatz bati ekitea ezinbestekotzat jo dugu: udalaren web gune berrian izango den euskara atalerako txoko berezia eratzea, eskuartean ditugun hainbat elementu baliatuz eta, gainera, tresna hori bizi-bizirik mantentzeko aukerak jorratuz.

Horri lotuta, bi aukera aztertzen ari gara:

- Bata, euskara atal hori Gernika-Lumoko Udalaren web guneko adar bat izatea, bertan txertatua, nahiz eta lehentasunezko sarleku bat izan.
- Bestea, web gune berezia izatea (“www.gernika-lumo-euskaraz.net”) eta Udalaren web gunean nabarmentzea bertara jotzeko bidea.

Hori guztia, Udala oraintxe lantzen ari dena nondik nora doan eta asko luzatzen den ikusita ebaztekoa litzateke.



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

2.- HELBURUAK

2009-2012 eperako onartu den Plan Estrategikoaren ildotik, 2009ko Kudeaketa Planak aintzat hartzen dituen helburu, neurri eta ekintzak garatu nahi dira egitasmo honekin. Hona hemen:

Helburu estrategikoa	2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza
-----------------------------	--

Esparrua	2.c - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak
-----------------	--

Neurria	2.c.001 - Teknologia berrien erabilpenaz udalerrian diagnostikoa egin eta udalerriko arloko eragileekin elkarlanean aritzeko foroa/bilgunea sortu behar da eta ekintzak proposatu, kutsu enpresariala oinarri eta euskararen erabilpena helburu.
----------------	--

Ekintza

2.c.001/001 - Teknologia berrien erabilpenaz diagnostikoa egin udalerrian

Neurria	2.c.06 - Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).
----------------	--



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

Ekintzak
2.c.06/001 - Udalaren web orri berrian euskarazko atal berezia landu eta euskalgintzako zein euskararekiko atxikimendua duten elkarteekiko loturak sortu.
2.c.06/2 - Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini
2.c.06/3 - Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean
2.c.06/4 - Udalak eta udalerriko elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza teknikoa eta diruzkoa eskaini

Neurria	2.c.07 - Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.
---------	---

Ekintza
2.c.07/1 - Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaltu: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa,...



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

3.- EUSKARAREN ATALA ERATZEA

3.1.- Noiz:

- Lehenengo fasea 2009an (“EUSKARA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK UZTARTZEN-I”, maiatzetik urrira bitartean: egin beharrekoa bigarren eranskinean agertzen da (IAMETZA enpresarekin adostutakoa):
 - **Informazio orokorra**
 - **Euskara Gernika-Lumon (datu soziolinguistikoak)**
 - **Euskaraz bizi atala**
 - **Agenda (estekak)**
 - **Zerbitzuak/dirulaguntzak**
 - **Itzulpenak eta zuzenketak online**
 - **Argitalpenak**
 - **Interneteko baliabideak**
- Bigarren fasea 2010ean, (“EUSKARA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK UZTARTZEN-II” maiatzetik urrira bitartean: hau ere aipatu eranskinean dator):
 - **Toponimia:** datuak datu-basera egokitu / Mapa bidezko bilaketa / Kontsulta pantaila / Gure herrian dago / Leku-izenak motaka eta auzoka / 104 eduki sartu (entzungaiak, kontakizunak, bideoak).
 - **Euskara Ikasi (garapena eta karga)**
 - **Euskara hobetu (garapena eta karga)**
 - **Albisteen atala**
- Hirugarren fasea 2011n, (“EUSKARA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK UZTARTZEN-III” maiatzetik urrira bitartean: aipatu II. eranskinean hau ere):
 - **Gernika-Lumoko euskara** (datuak datu-basera egokitu / Hiztegiko kontsulta / eguneko hitza/ 104 hitzei irudia lotu / Liburuaren bestelako edukiak.
 - **Ba al zenekien?:** 104 eduki sartu (entzungaiak, kontakizunak, bideoak)



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

- **Argazkien modulua:** argazkiak kargatu (300 argazki)
- **Parte hartzeko aukerak**

3.2.- Zelan:

Kontuan hartuta beharko litzatekeen aurrekontua (lehenengo faserako 10.000 € ingurua) asistentzia eta zerbitzuetarako adjudikazio zuzena egingo da. IAMETZA enpresarekin harremanetan gara eta daukaten esperientzia ikusita, proposena deritzogu lan honetarako eurei adjudikatzea.

II. Eranskinean agertzen dira zehatz-mehatz Iametza-k egin beharrekoen zehaztasunak.

3.3.- Baliabideak:

- Edukiak: honez gero, Euskara Zerbitzuak prest dauka egin beharrekoaren eskema eta horri buruzko egindako txostena dago I. eranskinean.
- Diru partidak: 2009ko aurrekontuan lehenengo faserako beharko den diru partidaren atxikipena egingo da.
- Giza baliabideak: Euskara Zerbitzuaren aldetik Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (HNT 1) izango da arduradun eta IAMETZA enpresak bereak jarriko ditu zerbitzura (edukietarako Argia-renak, komunikaziorako Antza-renak eta informatikarako Adur software productions-enak).

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:



Gernika-Lumoko Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

Gernika-Lumoko udalerriaren egoera soziolinguistikoaz jabe (euskaldunak %70; ia euskaldunak %17,3), egitasmo hau euskara hutsez eskaintzea dagokigula uste dugu. Bereziki, euskalgintzak eta euskararekin konpromisoa duen orok euskarazko erreferente sendoa izan dezan gauzatu nahi den egitasmoa dugu. Beraz, xede talde bereiztua jakitea erraza ez den arren, modu zuzenean egitasmo honekiko lotura duen xede taldearen kalkulua egin dezakegu gutxi gora-behera:

- Euskara ikasleak.....	400
- Hezkuntza (ikasle + irakasleak).....	3.600
- Enpresa txikiak (36 hitzarmen).....	320
- Merkataritza (126 hitzarmen).....	150
- Elkartek (hitzarmengintza).....	900
- Euskalgintza	

Hagatik, interes zuzena izan dezaketenen estimazioa eginik, 5.370 biztanle inguru dira web gune honekiko joera izango dutenak.

Adierazleak:

Egitasmoa abian jartzearena, hau da, web gune edo adarra eratzearena baloratu ahal izateko adierazleak izendatzea ez da erraza, baina modu bat da kontuan hartzea sortuko diren edukiak eta atalak sailkatu eta zenbatu eta edukien bilakaera neurtzea:

- Informaziozkoak.
- Egitasmo nagusiei buruzkoak.
- Herritarrek parte hartzeko jorratutako bideak.
- Digitalizatuta eskainitako argitalpen eta txosten bereziak bereziak.
- Zuzenezko estekak eta beste web gune batzueetarakoak.

Behin egitasmoa abian jarri eta denbora igaroz gero, argi dago adierazlerik garrantzitsuena bisita kopuruarena izango dela eta, horrekin lotuta, geuri dagokigu behar den zabalkunderako, partaidetza areagotzeko eta gunea bizi-bizirik mantentzeko lana.



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

5.- AURREKONTUA

Analisia eta koordinazioa	300
Diseinu grafikoa	1.000
Informazio orokorra	170
Euskara Gernika-Lumon (datu soziolinguistikoak)	570
Euskaraz bizi	950
7 egitasmoen datuen karga	1.300
Aurkibidea	750
Aurkibideko 50 helbideen karga	580
Agenda (estekak)-	0
Zerbitzuak/diru-laguntzak	370
5/6 diru-laguntzen eta zerbitzuen karga	940
Itzulpenak eta zuzenketak online	370
Argitalpenak	370
Euskara Ikasi (garapena eta karga)	370
Euskara hobetu (garapena eta karga)	280
Interneteko baliabideak (garapena eta karga)	470
Domeinu bat 10 urtetarako erostea	180
Probak, trebakuntza eta instalazioa	370
Besta karga eta edukia batzuk	1.000
Guztira	10.340

Gernika-Lumon, 2009ko urtarrilean

Idoia Fernández Antia
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Euskera Teknikaria I



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

I. ERANSKINA

“Udalaren web gunearen euskara atala egokitu eta indartzeko hausnarketa”



Gernika-Lumoko Udalak
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

II ERANSKINA

IAMETZA enpresak aurkeztutako proposamena